berria info

Asteazkena
Abuztuaren 29a
2012. X. urtea
2.850. zenbakia
1,30 €
www.berria.info

Umeei so
Haurtzaroari buruzko hainbat lan bildu ditu Getxophotok 30

Kataluniak «baldintzarik gabeko» erreskatea eskatu dio Espainiari

Generalitateak 5.023 milioi euro eskatu dizkio Erkidegoen Likideziarako Funtsari, eta «katalanen dirua» denez, ez du baldintza ekonomikorik edota politikorik onartuko

Zorraren ordainketei aurre egin nahi die gobernuak, eta dirua irailerako prest ez badu Kataluniak «zailtasunak» izango dituela esan du Francesc Homs bozeramaileak 15

LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Makinak Arantzadiko baratzeetan. Makinak sartu ziren atzo goizean Arantzadiko baratzeetan, Iruñean, eta lurra mugitzen hasi ziren. Iruñeko Udalak bere hirigintza planarekin segitzeko asmoa agertu du, eta azken egunotan eremua hesituta izan ondoren, atzo barrura sartu ziren makinak. Arantzadin parke bat eta baratzeen interpretazio zentro bat egiteko asmoa du udalak, baina egitasmoaren aurka azaldu da Arantzadi Auzolanean taldea. Atzo, lagun bat atxilotu zuten, baratzeetako obra oztopatzen saiatzeagatik. 12

Auzitegi Nazionalak debekatu egin du preso gaixoen aldeko martxa

Jose Luis Castro epailea Iosu Uribetxebarriarekin eta haren medikuarekin bildu da, eta bihar edo etzi emango du erabakia 6

Santosek baieztatu egin du bake prozesua hasiko duela FARCekin

Kolonbiako presidenteak gonbita egin dio ELN Nazioa Askatzeko Armadari elkarrizketa mahaian parte hartzeko. 2-3

Juan Manuel Santos. L. MUÑOZ / EFE

3 eta 6 zentimo artean merkatuko ditu Frantziak erregaiak

Gobernuak, ekoizleek eta banatzaileek hitzartu dute behin-behineko neurria, eta hiru hilabetez mantenduko dute. 16

Ewan McGregor aktore eskoziarrak jasoko du Donostia saria

Zinemaldiko hautaketa batzordeak ez du onartu Jesus Egigureni buruz Angel Amigok zuzendu duen dokumentala. 32

GAUR 40 ORRIALDE · HARIAN 2 · IRITZIA 4 · EUSKAL HERRIA 6 · EKONOMIA 15 · MUNDUA 18 · KIROLA 20 · AGENDA 26 · PLAZA 30